



*Euskadiko Lehendakaria*

*El Lehendakari de Euskadi*

**1/2016 DEKRETUA, otsailaren 2koa, Lehendakariarena, zeinaren bidez agintzen baita Kultura Aretoei buruzko Legearen Aurreproiektua lantzeko prozedura hasteko.**

---

Egungo euskal gizartearen ezaugarrietako bat erlijio-aniztasuna da. Hala eta guztiz ere, errealitate berri plural horren aurrean erakunde publikoek ez dute arau-tresna nahikorik indarreko ordenamendu juridikoan, sorrarazten dituen gaiak eta eskakizunak kudeatu ahal izateko.

Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak, bigarren artikuluan, bermatzen du elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu-edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarrizko askatasun hari datxekion zati gisa. Ildo horretatik, indarreko legeriak kultu-lekutzat definitzen ditu “soil-soilik” otoitz egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren “eraikin edo lokalak”. Kultura-aretoetatik hartzeko ez da aski lege ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, konfesio bakoitzeko erlijio-agintariek emandako berariazko “ziurtagiria” behar da.

Kultura-aretoen irekierari buruz gaur arte izan den lege-hutsunearen ondorioz, irizpide desberdinak erabili dituzte udalek era horretako zentzuei lizentziak ematerakoan; horrek agerian utzi du arau-eredua zehaztugabea edo eskasa dela, eta, horren ondorioz, arauaren hartzaileen segurtasun juridikoa murrizten dela.

Hain zuzen ere, ez Lurzoruari buruzko Estatuko 8/2007 Legeak, ezta, Autonomia Erkidegoaren esparruan, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko EAEko 2/2006 Legeak ere, ez dute kultu-lekuak antolatzeke eta irekitzeko arau zehatzik ezartzen, eta ekipamendu-erreserba orokor bat jasotzen dute erlijio-izaerako zentroetarako.

Beraz, ezinbestekoa da gure autonomia-erkidegoak kultu-gune eta -aretoei buruzko berariazko araudia izatea, gune horiek izan nahi dituzten erlijio-elkarteek erlijio-askatasunerako duten eskubidea babestu ahal izateko; halaber, ezinbestekoa da administrazio publikoei kudeaketarako irizpide egoki eta sendoak ematea, gune eta areto horiei lotutako eskaerak hirigintzako plangintza orokorraren esparruan administratzeko.

Euskal botere publikoek neurri positiboak hartzeko betebeharra dute –neurri arauemaileak barne–, beren lurraldean oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa. Horrek guztiak justifikatzen du kultura-aretoak edo -guneak irekitzeko buruzko berariazko araudia egiteko beharra, Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuak dakartzen obligazio horiei eraginkortasunez erantzuteko bide eman dezan.



Arautze horren helburuaren arabera, lege-mailako arau formala izango den tresna juridiko bat behar da, eta, beraz, martxan jarri behar da izaera orokorreko xedapenak lantzeko prozedura bat, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen bidez arautzen dena.

Dekretu honetan aipatutako prozeduraren antolamenduak hasiera-hasieratik eskatzen du araua egitea egokia dela adieraziko duen erabaki formal bat. Izan ere, formalitate hutsa baino gehiago da, garrantzi juridiko eta politiko handia duen egintza da, eta egingo den araua beharrezko eta bideragarri den ala ez zehaztuko duen gogoeta izan behar du oinarri.

Horregatik guztiagatik, eta hasteko aginduak, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1. artikulua arabera, ezinbestean izan behar duen edukian oinarrituta, hau

### **XEDATZEN DUT:**

#### **Lehenengoa.- Dekretuaren helburua eta prozedura has dadila agintzeko eskumena.**

1.- Dekretu honen helburua Kultu Aretoei buruzko Legearen Aurreproiektua lantzeko prozedurari ekiteko agintzea da.

2.- Prozedura hasteko agindua emateko eskumenari dagokionez, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak 4.1. artikuluan xedatzen duenaren arabera, dena delako gaietan eskumena daukan sailaren titularra den sailburuaren aginduz abiarazi behar da xedapen orokorrak egiteko prozedura.

Aipatu behar da aurreproiektuaren helburua Giza Eskubideen esparruan kokatzen dela, hala ondorioztatzen baita Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulutik (Pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasuna) eta Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluetatik.

Kasu honetan, hasteko agindua Lehendakariak ematen du, dekretu baten bidez, bera baita Lehendakariaren titularra, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren 20/2012 Dekretuak, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren idazketaren arabera, 4.1 k) artikuluan Lehendakariari ematen dio "giza eskubideak sustatzeko" eskumena.

Zehazkiago, Lehendakariaren barruan, Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokio "Giza duintasunean eta Giza Eskubideekiko konpromisoan oinarritutako bakearen eta elkarbizitzaren kultura sustatzeko sailen arteko estrategia bat diseinatu eta zuzentzea", Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretuaren 19 a) artikulua arabera.

#### **Bigarrena.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Araua guztiz bideragarria da, bai arlo juridikoari bai materialari dagokionez; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumenak ditu giza eskubideen sustapenaren gainean, baita harekin lotuta dauden beste gai batzuen gainean ere, hala nola hirigintza, osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, hedabideak, ingurumena eta



historia- eta kultura-ondarea, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

### **Hirugarrena.- Lege-aurreproiektuaren helburua eta xedea.**

Legearen helburu eta xedea da euskal gizartearen baitan diharduten elizei, konfesioei eta erlijio-elkarteei erlijio-askatasunaren oinarritzko eskubidearen erabilera bermatzea, kultu-aretoak eta bestelako erlijio-guneak irekiz eta funtzionamenduan jarritz, inolaz ere onartu gabe konfesioen eta erlijio-elkarteen artean bereizkeriarik egitea.

### **Laugarrena.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.**

Lege-proiektuak errespetatzen ditu Konstituzioaren 16. artikuluan ezarritako arau-esparrua, erlijio-askatasunari buruzko legeria organikoa, Estatuak erlijio-konfesioekin sinatutako hitzarmenak eta Espainiako Estatuak oinarritzko eskubideen, berdintasunaren eta erlijio-askatasunaren arloan berretsitako itunak.

### **Bosgarrena.- Aurrekontuan izango duen eragina.**

Lege hau indarrean sartzearen ondorioz sortzen diren gastuak, dagokien eskumen-esparruaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo udal administrazioak ordainduko dituzte; izan ere, Lege honek aurreikusten du eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek kultu-erabilerarako edo erlijio-izaerako beste helburu batzuetarako guneak ireki eta erabil daitezela beharrezkoak diren zoru-erreserbak ezarriko dituztela eta eskatu beharrekoak diren baldintza teknikoak eta materialak zehaztuko dituztela; beraz, litekeena da legearen aplikazioaren ondorioz udalei gastuak sorraraztea.

### **Seigarrena.- Beharrezkoak diren izapide eta txostenak.**

1.- Aurreproiektua idazteko, aintzat hartuko dira, batetik, Dekretu honen edukia, kontuan hartuz bete nahi diren helburuei ondoen egokituko zaizkien aukerak, eta, bestetik, ezarri nahi den araudia egokia eta legezkoa izango dela bermatzeko komenigarritzat joko diren kontsulten emaitza.

2.- Proiektua landu aurretik, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egingo da, honako hauei jarraikiz: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 19. artikulua eta genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideetatik lehenengoa (jarraibide horiek 2012ko abuztuaren 21eko Gobernu Kontseiluan onartu ziren).

3.- Dekretu-proiektua idatzitakoan Lehendakariari bidaliko zaio, aldeztu aurreko onarpena eman diezaion.

4.- Lehendakaritzako zerbitzu juridikoak txosten juridikoa prestatuko du, proiektuaren oinarri objektiboa aztertzeko, edukia legearekin bat eta zuzenbidearekin bat datorren ikusteko eta araugintzako teknikaren jarraibideak bete diren egiaztatzeko.

5.- Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, proiektua Eusko Jaurlaritzaren sailetara bidaliko da, partaidetza- eta kontsulta-izapiderako. Halaber, beharrezkoa da Euskal Udalen Elkartearekin partaidetza- eta kontsulta-izapidea egitea; izan ere,



lege-aurreproiektuaren arauketak zuzeneko eragina du Euskal Autonomia Erkidegoko udalen eskumenetan.

6.- Dekretuak entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea bete beharko du, 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

7.- Nahitaezkoak diren txostenak eta kontsulta-organoen irizpenak eskatuko dira, izapide hori arautzen duten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako txosten eta irizpen hauek bildu behar dira:

a) Kultura Sailaren Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, xedapen orokorrek euskararen erabileraren normalizazioan zer eragin duten eta hizkuntza arloan indarrean dagoen araudia betetzen duten ala ez argitzekoa (233/2012 Dekretua, azaroaren 6koa, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duena; 2. artikulua).

b) Emakunde Emakumearen Euskal Erakundearen txostenari dagokionez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluekin bat etorriz, aurreproiektu honi buruz ez da beharrezkoa Generoaren arabera Eraginaren txostenik egitea; izan ere, erakunde horren arabera, Jaurlaritzaren Kontseiluaren 2007ko otsailaren 13ko erabakiaz onartutako Jarraibideetako lehenaren 2. atalaren a) puntuan aurreikusitako salbuespena aplikatu daioke (Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna ezabatu eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko jarraibideak).

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzkoa, 192/2013 Dekretuaren 4. artikuluan eta 14/1994 Legearen 25. artikuluan ezarritakoaren arabera (192/2013 Dekretua, apirilaren 9koa, Ogasun eta Finantza Sailaren egitura eta funtzioak ezartzen dituena; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa).

d) Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, batzorde hori arautzen duen azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikulua xedatzen duenaren arabera.

8.- Ez da beharrezkoa Europar Batasunean izapiderik egitea.

9.- Bosgarren ataleko memoria ekonomikoa landuko da, zeinak ezar daitezkeen administrazio-kargen analisi bat izango baitu.

10.- Espedientera sartuko dira honako hauek: aurreproiektua egiten hasteko Dekretu hau, Dekretuari dagozkion dokumentu guztiak, bideratutako azterlanak eta kontsultak eta prozedura osoari buruzko memoria laburra, abenduaren 22ko 8/2003 Legeko 10.2 artikuluan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onartuko du, aipatutako legeko 13. artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **Zazpigarrena.- Dekretua Legesarea elkarlanerako gunean zabaltzea eta Tramitagune erabiltzea**

Dekretu hau Legesarea elkarlanerako gunean argitaratuko da, eta prozeduraren izapideak Tramitagune tramitazio elektronikorako aplikazio informatikoaren bidez egingo dira. Hori guztia Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin bat etorriz egingo



da: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituena; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituena.

#### **Zortzigarrena.- Idazketa elebiduna.**

Araua bi hizkuntzatan idazteari dagokionez, aditzera eman behar da Itzulpen Zerbitzu Ofizialak (IZO) egingo duela testuaren itzulpena, izaera orokorreko arau-xedapenen tramitazio elektronikorako aplikazio informatikoaren Erabiltzaileen Gidaliburuan ezartzen den moduan.

#### **Bederatzigarrena.- Tramitaziorako organo eskuduna**

Araubide Juridikoaren Zuzendaritzak izango du aipatutako prozedura tramitatzeko ardura.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 2an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA